

**DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN  
ORDENANTZA OROKORRA ONARTU  
AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, arauak egiteko prozeduran herritarrek parte hartuko dutela bermatzeko, ordenantza-proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Kontsulta horretan, eragina izan dezaketen subjektuen eta etorkizuneko antolakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

**1) EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN  
ARAZOAK.**

Gaur egun Pasaia Udalak badu udal-dirulaguntzak emateko araudi bat, eta araudi hori berrikustea eta eguneratzea komeni da. Beraz, uste dugu udal-dirulaguntzak emateko ordenantza orokor bat onartzeak honako hauek erraztuko dituela:

- Dirulaguntzak emateko prozesua argitu eta zehaztea.
- Udal sailen artean dirulaguntzak emateko prozesua homogeneizatzea eta bateratzea, eskaeren prozesuari, onuradunen betebeharrei eta dirulaguntzen justifikazioari dagokienez.
- Araudi oso bat onartzea, urteko deialdia sinpleagoa eta errazagoa izan dadin.
- Ordenantza legezko eskakizunetara egokitzea, gardentasunari, finantza-kontrolari eta zehapen-araubideari dagokienez.

**2) ONARPENAREN BEHARRA ETA  
EGOKITASUNA**

Ordenantza berria da, dirulaguntzen arloko araudia betetzeko sortutakoa.

**CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA  
ORDENANZA GENERAL REGULADORA  
DEL OTORGAMIENTO DE  
SUBVENCIONES**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con el objetivo de garantizar la participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas, con carácter previo a la elaboración del proyecto de ordenanza, se sustanciará consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

**1) PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN  
SOLUCIONAR**

En la actualidad el Ayuntamiento de Pasaia cuenta con una Normativa de concesión de subvenciones municipales que resulta conveniente revisar y actualizar, por lo que se considera que aprobar una Ordenanza General de concesión de subvenciones municipales facilitará:

- Clarificar y detallar el proceso de concesión de subvenciones.
- Homogeneizar y unificar el proceso de concesión de subvenciones entre los diferentes departamentos municipales en cuanto al proceso de solicitudes, obligaciones de los beneficiarios, justificación de las subvenciones.
- Aprobar una normativa completa de modo que la convocatoria anual sea más simple y sencilla
- Adecuar la Ordenanza a las exigencias legales en cuanto a transparencia, control financiero y régimen sancionador.

**2) NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU  
APROBACIÓN**

Se trata de una ordenanza de nueva creación para dar cumplimiento a la normativa en materia de subvenciones.

### 3) ARAUDIAREN HELBURUAK

Udal-araudi berri bat onartu nahi da, aurreko araudia indargabetu eta ordezkatu duen araubide oso eta integral bat.

### 4) ALTERNATIBA ARAUTZAILE ETA EZ-ARAUTZAILEAK

Toki-erakundearen araugintza- edo erregelamendu-ahalaren adierazpenak dira toki-ordenantzak eta erregelamenduak. Beraz, erreferentziazko gaiaren araudia garatzeko Udalak duen aukera arautzaile bakarra dira, hargatik eragotzi gabe oinarrietan arautu daitekeena.

### 5) EKARPENAK EGITEKO EPEA

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek, nahi izanez gero, goian adierazitako alderdi horiei buruzko ekarpenak egin ditzakete, posta elektronikoko honen bitartez:

[idezkaritza@pasaia.net](mailto:idezkaritza@pasaia.net)

Epea: 15 egun baliodun, kontsulta hau webgunean argitaratzen denetik.

### 3) OBJETIVOS DE LA NORMA

Se trata de la aprobación de una nueva norma municipal con una regulación completa e integral que derogue y sustituya a la anterior.

### 4) POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS REGULATORIAS Y NO REGULATORIAS

Las ordenanzas y reglamentos locales son las manifestaciones de la potestad normativa o reglamentaria de las Entidades Locales. Se trata, pues, de la única opción regulatoria de la que dispone el Ayuntamiento para el desarrollo normativo de la materia de referencia, sin perjuicio de lo que pueda regularse en las bases.

### 5) PLAZO DE APORTACIONES

Los ciudadanos, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones y aportaciones sobre los aspectos planteados a través del siguiente buzón de correo electrónico:

[idezkaritza@pasaia.net](mailto:idezkaritza@pasaia.net)

Plazo: 15 días hábiles a partir de la publicación de esta consulta en la web.